

JARRAIPENERAKO ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

a- Eskatzaileak zerbitzuak ematen dituen enpresaren edo erakundearen ziurtagiria, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa zehatz-mehatz nola gauzatu den egiaztatzen duena (eskaera honetan eredu bat dago). Adierazitako ziurtagiriak honako alderdi hauek zehaztu beharko ditu gutxienez:

- Eskubide hori zenbat denboratan baliatu den.
- Eszedentzia hartu edo lanaldi murriztu aurretik langileak egiten zuen lanaldia (kontratuaren arabera, ezein eszedentziarik edo lanaldi-murrizketarik kontuan izan gabe) eta lanaldi osoarekiko zuen harremana aplikatzen ari den hitzarmen kolektiboaren arabera, eta
- Lanaldi-murrizketaren kasuan, langileak kontratuaren arabera zuen ohiko lanaldiarekiko duen murrizketa, ezein eszedentziarik edo lanaldi-murrizketarik kontuan izan gabe.

Ziurtagiria eskumena duen pertsonak sinatu eta zigilatu beharko du. Ez da onartuko egiaztatzen den aldia amaitu aurreko data duen empresa-ziurtagirik.

b- Eszedentziaren kasuan, Gizarte Segurantzaren baja eman dela egiaztatzen duen partearen kopia, eta/edo lanaldi-murrizketaren kasuan, Gizarte Segurantzaren datuak aldatu direla egiaztatzen duen partearen kopia.

Eskatzailea Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean kotizatzen ez duen kooperatiba-sozietate bateko bazkide langilea edo lan-bazkidea bada:

- Eszedentzietan, erakunde pribatuan edo kotizatzen duten Gizarte Segurantzaren Erregimenean baja hartu izanaren ziurtagiria.
- Erakunde pribatuari edo kotizatzen duten Gizarte Segurantzaren Erregimenari egindako kotizazioan aldaketarik eragin ez duten lanaldi-murrizketetan, kooperatiba-sozietateetako bazkide langile edo lan-bazkide izateraren ziurtagiria, kotizazio mota, eta lanaldi-murrizketaren ondorioz mota hori aldatu ez izanaren ziurtagiria.

c- PFEZ errenta-aitorpenaren fotokopia, eskabidea aurkezten den dataren aurreko bi urteei buruzkoa edo, horrelakorik ez badago, PFEZari egozteko moduko diru-sarreraren ziurtagiria dagokion administrazioa emandakoa, kasu hauetakoren batean badago soilik:

- EAEtik kanpo aurkeztu izana, edo aurkeztu beharra eduki izana, PFEZaren aitortpena, eskariaren dataren aurreko bi urteetako zergaldiari dagokiona.
- Azken hiru urteetan, aldaketaren bat identifikazio-dokumentuan (AIZetik NANera aldatzea, abizenen grafia edo ordena, besteren bat...)
- Pasaportearekin identifikatzea

Eskaera honetan edozein datu-aldaketa alegatuz gero, dokumentu bidez egiaztatatu beharko da.